

EUSKALTEL TALDEAREN USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

1. Helburua eta aplikazio-eremua

Euskaltel Taldea enpresa-talde bat da, legearen arabera merkataritza-talde baten parte diren sozietatez osatua, zeinean Euskaltel SA baita erakunde nagusia. Politika honetan, Euskaltel Taldea edo Euskaltel aipatzen denean, ulertu behar da Taldea osatzen duten sozietate guztietan aplikatzekoak direla aipamen horiek.

Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren parte da dokumentu hau, eta, Taldearen Kode Etikoaren barruan, eroskeriari eta ustelkeriari dagokien zatia jasotzen du; zehazki, Euskalteleko Administrazio Kontseiluari (kontseilariei) nahiz Euskaltel Taldean jarduera profesionala dutenei (profesionalei) eragiten dieten interes-gatazkei dagokiena.

Politika honen helburua da Euskaltel taldeko kontseilari eta profesionalen jarduna erregulatuko duten oinarritzko printzipioak finkatzea, legearen nahiz dokumentu honetan zehaztutakoaren arabera eroskeriatzat edo ustelkeriatzat jo daitezkeen egoera guztiak ezabatzeko. Euskaltel Taldearen enpresa-jarduera osoa joko dugu jarduntzat, eta, bereziki, telekomunikazio-zerbitzuak ematea.

Zalantzarik izanez gero politika honen edo beronen interpretazioaren gainean, jo Euskaltel Taldeko araudia betearazteko arduradunarengana edo Kanal Etikora.

Politika hau, Euskalteli ez ezik, haren negozio-bazkideei ere aplikatu behar zaie, hots, Taldearekin harreman komertziala duten edo izateko asmoa duten kanpoko eragileei, hauek barne direla (baina ez hauek bakarrik): bezeroak, kontsumitzaileak, enpresa-aliantzak, enpresa-aliantzetako bazkideak, partzuergo bateko kideak, kanpoko hornitzaileak, kontratistak, aholkulariak, azpikontratistak, hornitzaileak, saltzaileak, agente aholkulariak, banatzaileak, ordezkariak, bitartekariak eta inbertitzaileak. Euskaltel Taldearen negozio-bazkideek, beren enpresa-ikuskaritzapean hirugarren batzuk baldin badituzte, ziurtatu behar dute haiek ere betetzen dutela politika hau, eta susmoa izanez gero kontratu-obligazioak ez direla betetzen edo legez kontrako jokabideak daudela, horren berri eman behar dute.

2. Onartzea, jarraipena egitea eta berrikustea

Politika hau Administrazio Kontseiluak onartzen duen egunetik aurrera aplikatuko da, eta intranet korporatiboen eta Euskaltel Taldeko enpresen web orrien bidez argitaratuko da.

Eroskeriaren aurkako araudia betearazteko arduradunak segimendua egingo die haren edukiari eta aplikazioari, eta aldian behin berrikusiko ditu. Hala badagokio, aldaketak edo hobekuntzak proposatuko ditu, zeinak Administrazio Kontseiluak onetsi beharko baititu.

3. Politika

Euskaltel Taldeak berariaz eta zalantzarik gabe adierazten du: ez du onartzen eroskeriarik eta ustelkeriarik; arbuia egiten ditu, eta espresuki debekatzen. Gainera, konpromiso sendoa du eroskeria eta ustelkeriaren prebentzio, disuasio eta detekzioarekin, eta, halakorik gertatuz gero, beharrezko neurriak hartuko ditu berehala bertan behera uzteko, bai eta jarduera horiengatik erantzukizunak eskatu ere.

Euskaltel Taldeak berariazko konpromisoa hartzen du hauek betetzeko:

- aplikatzekoak diren eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako legeak,
- eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako borondatezko beste arau batzuk,
- eta eroskeriaren aurkako kudeaketa-sistemaren betebeharrak (sistema hori etengabe hobetzeko konpromisoa ere badu).

Politika hau osatzeko, nazioarteko hainbat enpresa-erantzukizun eta ustelkeriaren aurkako politika hartu dira erreferentzia gisa. Hauek, besteak beste: ELGErenak, Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioarenak (CNUCC), Atzerriko ustelkeriazko jardunbideen aurkako AEBko Legea (FCPA: Foreign Corrupt Practices Act) eta Erresuma Batuko Eroskeriaren aurkako Legea (Bribery Act). Era berean, Espainiako Zigor Kodean oinarritzen da, zeinak eroskeriarekin eta ustelkeriarekin zerikusia duten jarduerak debekatzen baititu, eta bere egiten baititu eroskeriaren aurkako kudeaketa-sistemei buruzko ISO 37.001 arauan finkatutako irizpideak.

a. Eroskeriaren eta ustelkeriaren definizioa

- Nazioarteko erreferentzien arabera, hau da eroskeria:

dirua edo beste onura edo abantaila bidegabe bat eskaintzea, agintzea, ematea, baimentzea edo onartzea, negozio bat lortzeko edo hari eusteko, edo beste onura edo abantaila bidegabe bat lortzeko.

Eroskeriak, maiz, osagai hauek ditu: (i) esleitutako kontratu baten zati bat gobernuek, alderdietako funtzionarioek, kontratatutako langileek, senideek, lagunek edo negozio-bazkideek ordaintzea, edo (ii) bitartekariak erabiltzea —hala nola agenteak, azpikontratatistak, aholkulariak edo beste hirugarren batzuk— gobernuei edo alderdietako funtzionarioei edo beste alderdi kontratatzaile bateko langileei, haien senideei, lagunei edo negozio-bazkideei ordainketak bideratzeko.

Ustelkeria: eroskeria, estortsioa, delitua egitera bultzatzea, influentzia-trafikoa, eta ekintza horietatik ateratako dirua zuritzea.

- Euskaltel Taldeak arrisku penalak kudeatzeko sistema bat ezarri du, zeinean zehazten baita Zigor Kodean jasotako delituei lotutako arriskuak nola kudeatzen diren. Sistema horretan integratuta, eroskeriaren aurkako kudeaketa-sistema bat ezarri du Taldeak, eroskeriarekin eta ustelkeriarekin lotutako Zigor Kodeko delituak kudeatzeko. Sistema horretan, eroskeriaren aurkako araudia betearazteko arduradunak barne hartzen ditu eroskeriarekin eta ustelkeriarekin lotutako delituak,

eta delitu horiek identifikatzeko kontuan hartzen ditu Zigor Kodea eta jurisprudentzia eta doktrina aplikagarriak.

b. Ustelkeria-arriskuko zenbait arlotan jarduteko irizpideak

Eroskeria eta ustelkeria ez onartzeko, arbuiaitzeko eta debekatzeko printzipioak aplikatzeaz gain, UNODC drogaren eta delituaren aurkako Nazio Batuen bulegoaren ustelkeriaren aurkako enpresentzako programarekin bat etorritz, ustelkeria-arriskua duten arlo hauek identifikatzen ditu Euskaltelek, eta tratamendu berezia ematen:

i. Errazte- edo azkartze-ordainketak

Errazte- edo azkartze-ordainketatzat jotzen dira hauek: ordainketa txikiak, ez-ofizial eta desegokiak, funtzionario publiko bati egiten zaizkionak errutinazko ekintza bat edo beharrezko ekintza bat egiteko edo azkarrago egiteko (hala nola baimen eta lizentzia administratiboak ematea eta kontratua gauzatzeari lotutako ikuskapenak egitea), ordainketa egiten duenak ekintza horretarako eskubidea izanik.

“Funtzionario publiko” kontzeptuaren barruan sartzen dira edozein motatako gobernu-erakundeentzat edo gobernu-erakunde baten partaidetza duen edozein erakunderentzat lan egiten duten edo haren ordezkari diren pertsonak.

Taldeak debekatu egiten ditu errazte- eta azkartze-ordainketak.

ii. Gastu-mota bereziak

- Opariak, dohainak eta mesedeak

Opari, dohain eta mesedetzat hartuko da balio ekonomikoa duten elementuak entregatzea edo onartzea, edozein motatakoak direla ere. Hor sartzen dira, besteak beste: dohainak eta hobariak egitea, gastuak ordaintzea, dirua edo espeziak ematea, bazkari-, ostatu- eta bidaia-gastuak ordaintzea, ekitaldi sozialetara gonbidatzea, eta hitzaldietan, bileretan, arte- eta kirol-eremuko ekitaldietan eta babesletza-ekitaldi korporatiboetan parte hartzea. Halaber, hemen sartzen dira mota guztietako zerbitzuengatik egindako ordainketak, zerbitzu horiengatik ordaindutako dirua itzultzea eta mota guztietako mesedeak, barne dela lagunei edo senideei lanpostuetarako eta negozioetarako bidea erraztea.

Euskaltel Taldeko kontseilariak eta profesionalek ezingo diete hirugarrenei oparirik, dohainik edo mesederik eskatu edo eskaini, ez eta jaso ere, baldin eta haien inpartzialtasuna aldatuko badute, haien objektibotasunari eragingo badiote, harreman komertzial profesional batean eragina izango badute edo Taldearen edo hirugarren horren barne-araudia urratuko badute.

Aurreko paragrafoan esandakoa betetzen duten opariak eta dohainak emateko nahiz jasotzeko, proportzionaltasun-printzipioa eta ohiturak hartu behar dira

kontuan; horretarako, merkatuko prezioetan duten balio ekonomikoari begiratuko zaio.

Ezin da oparirik, dohainik eta mesederik erabili abantaila bidegabeak eskuratzeko edo legez kanpoko transakzioak egiteko.

Zalantza izanez gero opari, dohain edo mesede bat onargarria den edo ez, oro har, ez da onartu behar. Nolanahi ere, zalantzak argitzeko, araudia betearazteko arduraduna (Compliance Officer) eta Kanal Etikoa jarri ditu langileen eskura Taldeak. Ezinezkoa irudituz gero opari, dohain edo mesede bat ez onartzea, araudia betearazteko arduradunari jakinarazi behar zaio.

- Mezenasgoak eta babesletzak

Honela definitzen da mezenasgoa: jarduera kultural, artistiko edo zientifiko bati emandako babesa edo laguntza, onuradunak ordainetan ezer jasotzen ez duela.

Babesletza, berriz, jarduera baten laguntza edo finantzaketa da, eta helburua publizitatea egitea izaten da normalean. Politika honen ondorioetarako, babesletzat hartzen dira Euskaltel Taldeak arte-, kultura-, zientzia-, hezkuntza-, kirol- edo gizarte-jarduerak egiteko ematen dituen laguntza ekonomikoak, helburua izanik bere irudia eta ospea, batetik, eta interes-taldeekiko harremanak, bestetik, sustatzea, sendotzea eta hobetzea.

Euskaltel Taldeak egiten dituen mezenasgo eta babesletzak gizartearekiko konpromisoa eta erantzukizuna adierazteko modu bat dira, eta babestuei ekarpen ekonomikoak egitea dute helburu, haiek beren jarduera instituzionalak, korporatiboak, sozialak, kirol-arlokoak, kultura-arlokoak nahiz zientziakoak egin ditzaten, trukean haiek, publizitate-ekintzen bidez, Euskaltel Taldearen irudia eta marka indartzen dituztela, besteak beste.

Babesletza eta mezenasgo hauek baino ez ditu egiten Euskaltel Taldeak: hautaketa-irizpide objektibo, arrazoizko eta gardenekin, eta bere balio korporatiboekin eta estrategiarekin bat datozenak eta Euskaltel Taldearen marka eta negozioa garatu eta indartzea helburu dutenak.

Mezenasgoak edo babesletzak egiteko, aldeztu aurretik onartu behar ditu Euskaltel Taldeak, barneko araudiaren eta aplikagarri diren prozeduren arabera.

- Interes-gatazkak

Interes-gatazka bat dagoela esango da kontseilariaren edo profesionalaren interes pertsonala eta Euskaltel Taldearen interesa bata bestearen kontrakoak direnean, zuzenean edo zeharka.

Taldeak badu interes-gatazkei buruzko politika korporatibo bat, egoera horietan aplikatzekoa.

c. Ustelkeria-arriskua duten beste eremu batzuk

i. Kontabilitate-erregistroak eta informazio ofiziala

Euskaltelen jarduteko oinarritzko printzipioetako bat da bere finantza- eta ekonomia-informazioa fidagarritasunez ematea, eta printzipio hauetan oinarrituta: transakzioen existentziaren printzipioa eta informazioaren osotasunarena.

Bere finantza-informazioa osatzeko, printzipio hauek aplikatzen dira: eskubide eta betebeharrak indarrean den legeriaren arabera balioestea, aurkeztea, xehatzea, konparatzea eta islatzea.

Halaber, finantza-informazioa prestatzeko, barneko kontabilitate-kontrol egokiak ditu Euskaltel Taldeak, egiten dituen transakzioak zehatz eta egoki jaso daitezen kontabilitate-erregistroetan eta informazio ofizialean. Hala, finantza-informazioaren euskarri den dokumentazioan ez da jasotzen erregistro edo aitoren faltsurik edo engainagarririk, eta ez da okerreko transakziorik nahita erregistratzen kontabilitateko kontuei, kontabilitateko aldiei edo haiekin zerikusia duten gainerako alderdiei dagokienez.

Egindako transakzioak justifikatzeko adina xehetasun du Euskaltel Taldearen dokumentazioak, eta legeak ezarritako epean gordetzen da.

ii. Negozio-bazkideak

Euskaltel Taldeak zintzo eta prestu jarduten du bere negozio-bazkideekiko harreman komertzial guztietan.

Taldeak egindako kontratazioetan, esleipendunak hautatzeko, beti bermatzen da berdintasun-irizpidea, eta produktuak hornitzearekin edo zerbitzuak ematearekin lotutako ordainketak ez dira inoiz erabiltzen Euskaltelen Kode Etikoaren edo politika honen oinarritzko printzipioen eta balioen aurka jarduteko.

Euskaltel Taldeak bere negozio-bazkideen lege- eta finantza-egoera aztertzen du, modu arrazoizko eta proportzionatuan, eta dagokien eroskeriaren aurkako legeria zorrotz betetzeko eskatzen die.

iii. Lehiaren aurkako jardunbideak

Lehiaren aurkako jardunbide gisa ulertzen ditugu bi enpresak edo gehiagok lehia mugatzeko egindako hitzarmenak.

Euskaltel Taldeak lehiaren aurkako jardunbide guztiak debekatzen eta arbuiatzen ditu, bai lehia mugatzeko egindako hitzarmenak, eta bai posizio nagusien abusuak.

4. Euskaltel Taldeko eroskeriaren aurkako arduradunaren eginkizunak

Euskaltel Taldearen araudia betearazteko arduradunaren eginkizunetako bat da eroskeriaren aurkako araudia betearaztea, eta behar adinako aginpidea eta independentzia du bere jardunean.

Eroskeriaren aurkako araudia betearazteko eginkizuna izanik, araudia betearazteko arduradunari dagokio politika hau behar bezala aplikatzea, bai eta eroskeriaren aurkako kudeaketa-sistema kudeatu eta berrikustea ere.

5. Kanal Etikoa

Taldearen Kanal Etikoa erabil daiteke zalantzak argitzeko, kontsultak egiteko eta/edo Euskaltel Taldearen Kode Etikoaren oinarritzko balio eta printzipioen aurkako jardueren berri emateko. Une oro bermatuko da konfidentzialtasuna, eta ez da diziiplina-neurririk hartuko asmo onez egindako komunikazioen aurka.

6. Diziiplina-araubidea

Politika hau ez betetzeak, jada behar bezala ziurtatuta eta kalifikatuta dagoela, ondorio hau ekar dezake: erantzukizunak eta/edo zigorrak eskatzea, aplikagarri den legediaren, Euskaltel Taldearen Gobernu Korporatiboko Sistemaren eta/edo dagokion enpresa-hitzarmeneko diziiplina-araubidearen arabera.

Politika korporatibo hau Euskaltel SAREN Administrazio Kontseiluak onetsi du 2019ko abenduaren 17an.